

MOZIO ARRUNTA, LOIOLAKO KUARTELETAN DAGOEN DIBISIO URDINAREN SINBOLOGIARI BURUZKOA

EH BILDU udal taldeko bozeramaile Reyes Carrere Zabalak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, honako MOZIO ARRUNT hau aurkezten du, Loiolako kuarteletako Dibisio Urdinaren sinbologiari buruzkoa.

JUSTIFIKAZIOA

Azken hilabeteotan zeresan handia eman du Loiolako kuarteletako erakusketa historikoan Espainiako Defentsa Ministerioaren oniritziarekin Dibisio Urdinari eskainitako atalak. Noticias de Gipuzkoa hedabideak 2021eko azaroan eman zuen erakusketaren berri, eta, orduan, EAJren senatari Estefania Beltran de Herediak gaiari buruz galdetu zion Felix Bolañosi, Memoria Demokratikoko Espainiako ministroari; Dibisio Urdinaren sinbologia Loiolako kuarteletatik kentzeko eskatu zion, Memoria Historikoaren Legea beteta. 2022ko otsailean, berriz, EH Bilduren diputatu Jon Iñarrituk Margarita Robles Defentsa ministroari galdetu zion gaiaren inguruan, eta ministroak ezeztatu zuen Loiolan Dibisio Urdinari buruzko “erakusketa iraunkor bat” dagoenik.

Roblesek Iñarrituri azaldu zionez, Loiolako kuarteletan 67. Tercio Viejo de Sicilia infanteria-erregimenduaren historia biltzen duen historia areto bat dago, eta areto hori “erosketekin, donazioekin eta gordailuekin elikatzen dute, eta informazioa une oro eguneratzen dute, ikerketa historikoek aurrera egin ahala”. Areto horretan, Roblesen arabera, Bigarren Mundu Gerrak Espainiako armadan eta, ondorioz, Loiolako kuarteletako erregimenduan izan zuen eragina islatzen duen atal bat dago, non “soldadu espainiarrek gatazkan egindako jarduerak” erakusten diren. Ildo horretatik, maila berean jarri ditu faxismoaren eta nazismoaren aurka borrokatzeko Frantziako Estatuko muga pasatu zutenak eta Dibisio Urdinekoak: “Erakusten diren jarduera horien artean daude faxismoaren aurka borrokatzeko muga frantsesa pasatu eta armada aliatuetara batu ziren milaka errepublikano espainiarrenak, bai eta Espainiako Boluntarioen Dibisioarenak [Dibisio Urdina] ere”. Halaber, ministroak nabarmendu zuen Loiolako kuarteletan legea betetzen dela. Baina, agerikoa da Roblesek “ebidentzia ukatzen” duela eta Loiolako kuarteletan dagoen Dibisio Urdinari buruzko erakusketa “historizismoan kamuflatzen” dela. Hainbat elkartek ere, artean Sare Antifaxistak, erakusketa salatu zuten: “Nazismo genozida eta terroristaren apologia eta goraiatzea Loiolako kuarteletan”.

Horiek horrela, EH BILDU udal taldeak honako mozio arrunt hau aurkezten du:

1. Donostiako Udaleko Osoko Bilkurak Espainiako Defentsa Ministerioari eskatzen dio lehenbailehen ken dezala Dibisio Urdinaren sinbologia Loiolako kuarteletatik, Memoria Historikoaren Legea beteta.

Donostian, 2022ko martxoaren 4an

Reyes Carrere Zabala,

EH Bildu udal taldeko bozeramailea